

EHTE-rako LOGO LEHIAKETAREN OINARRIAK

Euskal Herriko Txistulari Elkarteak deialdia egiten du, lehiaketa bidez bere elkarteak egokien ordezkatzeko duen logotipo berria hautatzeko.

Hona lehiaketa arautuko duten OINARRIAK:

1. Helburua: Logotipo baten diseinua, zeinak xede duen Euskal Herriko Txistulari Elkarteak ordezkatzeko duen irudia izatea.

2. Parte hartzaileak: Lehiaketa publiko zabalari zuzendua dago.

Edozein pertsona naturalek parte hartu ahal izango du deialdi honetan, nazionalitate edo bizilekuagatik inongo ezberdintasunik egin gabe, ezta bestelako mugarik ere, oinarriek jasotakoetatik haratago.

3. Gaia: Lanak honako ezaugarriak asebetetzen dituen logotipoa izan beharko du: gure elkartearen iragana eta batez ere etorkizuna uztartu eta gaztetu egiten gaituena, erakargarria eta txistuaren munduaren aniztasuna islatzen duena dena hots, abangoardia, tradizioa, esperimentazioa, etab., barne biltzen dituena.

4. Oinarriak:

a) Diseinuak originala eta argitara gabea izan beharko du. Logoa, norberaren sormenaren eta lanaren fruitu dela, eta beste pertsonen jabego intelektualak urratu gabe egin dela ziurtatu beharko da.

b) Grisen eskalara erraz eraman daitezkeen koloreak aukeratzea gomendatzen da, gero koloretan zein zuri-beltzean gauzatzeko.

c) Aurkeztu beharreko formatoa: logo bakoitza DIN A4 tamainako PDF-an eta BMP, GIF, JPG edo TIF formato digitalean, ahalik eta bereizmen handiena erabiltzea aholkatzen delarik.

d) Parte hartzaileek gorde beharko dituzte bidalitako materialaren kopiak, hauek ez baitira itzuliko.

e) Behin logo proposamena bidalita ezingo da atzera egin.

5. Proiektuen aurkezpena: Lehiaketan esku hartuko duen diseinu proposamen oro komunikazioa@txistulari.eus helbidera igorri beharko da, argi eta garbi adieraziz *EHTEko logo lehiaketara* zuzenduta dagoela.

2018ko maiatzaren 7tik, 2018ko irailaren 7a arte jasoko dira lanak.

6. Epaimahaia eta ebazpena: Epaimahaia, elkarteko zuzendaritzak izendatutako batzorde batek osatuko du, hala erabakiz gero, Diseinu Grafikoaren alorreko profesional bati aholkua eska diezaiokeelarik.

Epaimahaiko ezein kidek ezingo du parte hartu lehiakide gisa.

Epaimahaiaren ebazpena apelaezina izango da, irabazleari jakinarazpena mezu elektronikoa bidez helaraziko zaio eta publiko egingo da www.txistulari.eus atarian **urriaren 1etik aurrera**.

Ez da epaimahaiaren akordioen aurkako helegiterik onartuko, oinarriok urratu izanaren ziurtasunik ez baldin badago behintzat.

Epaimahaiak bere gain du saria emateke uztea eta lehiaketa berria deitu edota oinarri berriak zehazteko aukera, bertara lan berriak aurkeztu beharko liratekeelarik.

7. Jabego eskubideak

a) Lehiaketako garaileak, egin eta aurkeztutako lanaren eskubide guztiak Euskal Herriko Txistulari Elkartearen gain lagatzen ditu.

Horregatik, elkarteak, grafikoaren eta lanaren izenari erator dakizkioken eskubide ororen jabea izango da, hala nola bestelako eskubideena zein “copyright”-arena. Era berean, manipulazio, edizio, erakusketa zein erreproduzio eskubideak ere lagatzen zaizkio

elkarteari.

b) Lan irabazlearen jabegoa, erabilpena eta eskubideak Euskal herriko Txistulari Elkarteari bakarrik egokituko zaizkio.

c) Euskal Herriko Txistulari Elkarteak, aurkeztutako lanen gaineko eskubide guztiak izango ditu.

d) Irabazleak uko egiten dio, inongo mugarik gabe, diseinuaren gaineko eskubide eta jabego orori.

e) Irabazleak erantzukizuna bere gain hartuko du osoki, lanaren originaltasunari, antzekotasunei edo kopia partzialei buruz, hirugarren pertsonak jarri ahal izango lituzketen erreklamazioen aurrean.

8. **Saria:** Sari bakarra ezartzen da, zeinak barne biltzen dituen 100 euroko bonoa, elkarteko produktuez osatua, eta *Txistulari* aldizkariaren harpidetza bi urterako. Aldi berean, ahalik eta zabalkunde handiena emango zaio elkartearen web orrialdean, aldizkarian eta elkartearen eskura dauden beste baliabideen bitartez.

9. **Oinarriak onartzea:** Lehiaketan parte hartzeak berarekin dakar oinarriok eta epaimahaiaren ebazpena onartzea. Aurreikusita ez dagoen edozein kasu, epaimahaiak berak argitu beharko du, bere erabakiaren berri parte hartzaile bakoitzari jakinaraziz.